



**BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO
UNIBERTSITATE ESKOLA**



GRADUA MEKANIKA :

GRADU AMATERAKO LANA

2013 / 2014

AUTOMOBIL BATEN TRANSMISIOAREN DISEINUA

7. BEREZKO GARRANTZIA DUTEN IKERLANAK

IKASLEAREN DATUAK

IZENA: ASIER

ABIZENAK: MAESTRE SERRANO

SIN.:

DATA: 2014-06-19

ZUZENDARIAREN DATUAK

IZENA: MIKEL

ABIZENAK: ABASOLO BILBAO

SAILA: MEKANIKA

SIN.:

DATA: 2014-06-19

AURKIBIDEA

7.1 CE Ziurtagiria.....	2
7.1.1 Sarrera.....	3
7.1.2 CE Adostasun adierazpena.....	3
7.1.3 Adostasunaren Ebaluazioa.....	3

7.1 CE Ziurtagiria:

7.1.1 Sarrera:

Produktu batek CE ziurtagiria edukitzeak adierazten du produktuaren egileak edo Europar batasunak ezarritako ordezkariak ziurtatzen duela produktu horrek betetzen dituela CE erakundeak ezarritako baldintzak.

Izan ere, produktu honek ziurtagiria edukitzeak ahalbidetzen du egileari erakunde honen sinadura produktuan ipintzea. 7.1 irudian CE erakundearen sinadura agertzen da.



Irudia 7. 1 CE

7.1.2 CE Adostasun adierazpena:

Makinaren ale bakoitzak CE adostasun adierazpena eraman beharko du. CE adostasun adierazpena helbide herrialdean hizkuntzan idatzita egon beharko da. Fabrikatzailea, bere ordezkaria, banatzailea edo herrialde horretan makina saltzeaz arduratzen den pertsona CE adierazpenaren itzulpena egiteaz arduratuko da.

98/37/CE Zuzendaritzaren II. Eranskinean agertzen den bezala, CE adostasun adierazpena makina, multzo trukagarri edo segurtasun osagaia den arabera, elementu jakin batzuk edo beste batzuk izan beharko ditu.

Ulermena hobea izan dadin arlo guztiak definituko dira, eta ondoren, adierazi beharreko atalak gabiltzan makina, multzo trukagarri edo segurtasun osagaiaren arabera.

Zuzendaritzak erabiliko dituen arloak hurrengoak izango dira:

- Fabrikatzaile edo erkidegoan dagoen ordezkariaren izena eta helbidea. Erkidegotik kanpo fabrikatutako makinetan, Fabrikatzaile eta ordezkari legalaren izena ere jarri beharko da.
- Makinaren deskribapena; marka, modelo eta serie zenbakia barne.
- Segurtasun osagaietarako, osagaiak daukan segurtasun funtzioa adierazi behar da, osagai honen deskribapena bistakoa ez bada.
- Multzo trukagarriak erabiltzea debekatuta dago, muntatuko diren makinaren Zuzendaritzek adostasuna adierazi ez badute.
- Makinan adostutako neurri egoki guztiak eta makinari aplikatu ahal zaizkion Zuzendaritza erreferentzia guztiak. Derrigorrezkoa ez bada ere, garraio nazionalen erreferentziak gehitu daitezke, hau da, aplikazio Zuzendaritza ostentzen duten Erreal Dekretuei erreferentzia egiten diotenak.
- Erakunde adituaren izena eta helbidea eta, lortuz gero, CE tasa ziurtagiriaren zenbakia.
- EET –ren frogapena egin edo komunikatu den erakunde adituenaren izena eta helbidea.

- Erabili diren arau eta espezifikazio tekniko nazionalak. Harmonizatuak ez dauden beste arauak adierazi daitezke, edo norma nazionalak. Egokia bada, atal honetan arau proiektuak adieraziko dira. Era berean, araudi edo arauak ez diren espezifikazio teknikoak adieraziko dira.
- Arau harmonizatuei erreferentzia. Nahiz eta arau harmonizatuak betetzea beharrezkoa ez izan, Fabrikatzailearentzat arau hau agertzea hobe da, Zuzendaritzek funtsezko baldintzak betetzen dituen adostasuna makinari emango badiote. Norma europarrari edo zuzenean norma nazionalari erreferentzia egin ahalko zaio. Araudiaren egoera aurrera doanez, arauen argitaratze data eta edizioa adierazi beharko da. Bestetik, arau harmonizatuak erabiltzen ez badira, funtsezko baldintzak betetzeko erabili den aukera adierazi behar da.
- Fabrikatzailea edo bere ordezkariarekin lotzeko izenpetzaile boteredunaren identifikazioa. Nahitaezkoa da izena aipatzea, errealtasunaren seinale bat baita. Derrigorrezkoa izan arren, sinadura deneko lekua eta data adieraziko da.

Hurrengo orrialdean, CE adostasunaren modelo bat adierazten da.

Modelo honen estruktura eta forma aldatu daitezke fabrikatzailearen iritzien arabera. Beti ere, arauaren arabera beharrezkoa den informazio minimoa izaten badu.

- **CE Adostasunaren Aitorpenaren Modeloa:**

Erakundea

(Fabrikatzailearen izena, helbidea, eta bestelako informazioa)

Bere arduraren gainean adierazten du makina,

Marka

Mota

Serie zenbakia

98/37CE Zuzendaritza Teknikoarekin adostasunean dagoela.

Arau harmonizatuak

Sinatzailearen datuak

Izena

Ardura

Lekua eta data

Sinadura:

7.1.3 Adostasunaren Ebaluazioa:

Adostasunaren ziurtagiria ezinbestekoa da Zuzendaritza ezartzeko. Horregatik, atal honetan 8. artikuluan zehaztutako prozedurak aztertuko dira, bai eta prozeduretatik kanpo dauden ikurak ere:

- Makina guztiek CE marka eraman behar dute eta ziurtagiria ere izan beharko dute.
- Segurtasun osagaiak, ordea, ez dute CE marka izan behar baina bai ziurtagiria.

Makinen erabilgarritasun maila zehaztea ez da beharrezkoa, eta zehaztu beharreko gauza bakarra gutxienezko segurtasun baldintza batzuk betetzen dituen adostasuna da.

Segurtasun osagaiekin, ordea, gutxienezko segurtasun baldintzak betetzeaz gain, bizitza erabilgarri osoan dagozkien funtzioak era egokian bete beharko dituzte.

Adostasunaren ebaluazio prozedura makinaren araberakoa da, adibidez, makina arriskutzat hartzen bada edo ez. Horretarako, Zuzendaritzak IV. Eranskinen makinaren sailkapen sakona egiten du. Inolako estatu-kideek ezin du beste makina edo segurtasun osagairik gehitu. Aldaketa soilik ekintza edo ekintza legegile baten bidez bakarrik posible litzateke, Zuzendaritzaren Kontseilu batean.

Fabrikatzaile zein erkidegoan egon daitezkeen ordezkoren esku egongo da makinak Zuzendaritzaren zehaztapenak betetzen dituela frogatzeko beharrezkoak diren baliabidea. Izan ere, makinaren arau batzuk edo beste batzuk beharko dituzten IV. eranskinaren zerrendaren arabera.

CE marka edukitzeak esan nahi du makina horrek Zuzendaritzaren oinarritzko ezaugarri guztiak betetzen dituela. Ondorioz, Zuzendaritza bakoitzean aplikatutako ziurtagiri espezifikoaren prozedurak jarraitzea behartzen da.

Makina bakoitzerako, seguritate eta osasunen adostasuna ebaluatzeko hiru metodo bereizi daitezke. Kontutan izan behar da horietako bakoitzean erakunde adituenaren parte hartzea beharrezkoa dela.


Hiru prozeduren artean bat aukeratzeko, araudi harmonizatu bat dago aztertzerako goazen makinarako. Makina arau harmonizatuen arabera eraikitzen bada, Zuzendaritzaren segurtasun ezaugarri guztiak betetzen direnez, Fabrikanteak berak adostasuna aitortu dezake. Ondoren, erakunde adituenari eraikitze espediente

teknikoaren berri eman beharko dio , erakunde horrek homologatzeko. Kasu honetan, Fabrikatzaileak bi aukera izango ditu.

1. Erakunde adituenak eraikitze espediente teknikoa jaso duenaren berri emango du. Kasu honetan, erakundeak espediente teknikoa zainduko du. Kasu honetan, makina horren erantzukizun osoa Fabrikatzaileari dagokio. Gainera, behartuta dago espediente teknikoak jasaten dituen edozein aldaketa erakunde adituenari komunikatzera, makinan bertan egin den edozein aldaketaren ondorioz.
2. Erakunde adituenak egokitze ziurtagiria emango du. Kasu honetan, erakundeak espediente teknikoa aztertu eta araudi harmonizatuak betetzen dituela ziurtatuko du. Beste aldetik, Fabrikanteak erantzukizun osoa jarraituko du izaten, espediente teknikoaren analisisian erakunde adituenak eginiko hutsegiteak izan ezik. Gainera, behartuta dago espediente teknikoa jasango dituen edozein aldaketa erakunde horri komunikatzera, makinan bertan egin den edozein aldaketa dela eta.

Adostasun ebaluazioa egiteko hirugarren prozedura CE tasa azterketan oinarritzen da. Prozedura hau erabiliko da Zuzendaritzaren segurtasun baldintzekin bat egiten duten arau harmonizatuak existitzen ez badira. Arauak existitzen badira baina Fabrikatzaileak makinaren gauzatzean baldintza guztiak bete ez baditu, prozedura hau erabili beharko da ere.

Hurrengo irudian CE tasa azterketa egiteko prozedura azaltzen da:



Irudia 7. 2 CE Ziurtagiria lortzeko prozesua

Horrela, Fabrikatzaileak erakunde arituenaren aurrean makina eta dagokion eraikitze espediente teknikoa azaldu beharko du. Erakundeak, beharrezkoak diren entsegu, azterketa eta ikerketak egingo ditu. Ikerketa guztiak amaitu ondoren, erakunde adituenak CE tasa ziurtagiria emango du. Oro har, Fabrikantea behartuta dago espediente teknikoak jasaten dituen edozein aldaketa erakundeari komunikatzera, makinan bertan edozein aldaketa dela eta.

Beste aldetik, makina edo segurtasun osagai mota honek Zuzendaritzaren V. Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Adostasun ebaluazio prozedura honen baldintzek "auto-zuzenketa prozedura" jarraitzen dute. Hurrengo irudian errazago ulertu daiteke.



Irudia 7. 3 CE Ziurtagiria lortzeko prozesua